

# EKINTZA HUMANITARIOARI BURUZKO LAN-DOKUMENTUAK

## 4. zk.

### “Zeharkako alderdiak eta ikuspegiak lan humanitarioan”

## Aurkezpena

“**Zeharkako alderdiak eta ikuspegiak lan humanitarioan**” lan-dokumentua aurkezten dizuegu. Ekintza humanitarioari buruzko bilduma osatzen duten bost koadernoetako laugarrena da. Zeharkakoez eta ikuspegiez gain, ekintza humanitarioaren gaur egungo erronkak eta joerak, kontzeptua eta mugak, hura implementatzen duten eragileak, eta kontu-ematea lantzen dira.

Dokumentu hauetan, erakunde humanitarioek, emaileek, erakundeek eta ikerketa-komunitateak nazioarteko elkartasunaren eremu horretan eraginkortasuna eta kontu-ematea hobetzeko gaur egun dituzten erronkak eta eztabaida nagusiak daude bilduta.

Gainera, baliagarriak dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) 2017an abian jarritako Ekintza Humanitarioaren Estrategia lantzeko prozesurako. Estrategia horren azken helburua erronka horiei beren ezaugarriak eta ahalmenak kontuan hartuta erantzutea da.

Dokumentuak Hegoa, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenera buruzko Ikasketa Institutuko (UPV/EHU) ikertzaile Karlos Pérez de Armiñoren koordinaziopean landu dira. Laugarren zenbaki honen egileak ECAH Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikerketa Institutuko Karlos Pérez de Armiño, Francisco Rey Marcos, Alicia Pérez Daza eta Atria Mier Hernández dira.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ez du zertan bat etorri lan honetan adierazitako iritziekin.

Dokumentu honek *Creative Commons* erakundearen lizentzia dauka. Lan hau askatasun osoz kopiatzeko, banatzeko eta jendaurrean jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik eratorritako beste lan bat sortu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo

Gasteiz, 2017ko ekaina

# ZEHARKAKO ALDERDIAK ETA IKUSPEGIAK LAN HUMANITARIOAN

## 1. Sarrera

Praktikak nahiz ikerketa akademikoak frogatu dute hainbat alderdik, ez badira kontuan hartzen, eragin negatiboa izan dezaketela ekintza humanitarioko proiektu baten helburuan eta baita zuzenduta dagoen herrialdeetan ere, eta eragin horiek epe ertain eta luzean iraun dezaketela. Elementu jakin batzuk barnean ez hartzeak edota azterketarik ez egiteak, desberdintasunak, botere-egiturak eta komunitateentzako arriskuak iraunaraztea ekar dezakete. Egiten ditugun jardunen fase guztietan – identifikazioa, betearazpena, jarraipena eta ebaluazioa– ez baditugu kontuan hartzen alderdi horiek, kalterik gabeko ekintzaren printzipioa (*do no harm*) ez da errespetatuko, ezta inpartzialtasun-printzipio humanitarioa ere.

Kontuan izan behar diren eta ekintza humanitarioan tradizionalki behar adinako arreta eman ez zaien edota balioetsi ere egin ez diren ikuspegiak barnean, zenbait kasutan berehalakotasun-premia justifikazio gisa erabiliz, identifikazio-prozesutik neurri handiago edo txikiagoan kontuan izan behar diren eta proiektuaren ziklo osoan zaindu behar diren alderdiak azpimarratzen ditugu.

Kalitateari buruzko nazioarteko hainbat gida eta ekimenek, alderdi horiek balioetsiko direla ziurtatzeko jarraitu behar diren urratsak edo *check-list* deitutakoa eskaintzen dizkigute. Koaderno honetan proposamen horietako batzuk erreferentzia gisa hartzen ditugu.

### 1.1. Eskubideetan eta babesean oinarritutako ikuspegia<sup>1</sup>

Hasiera-hasieratik, ekintza humanitarioak bi asmo argi izan ditu: hondamendi naturalen eta/edo gatazka armatuen kasuetan pertsonen eta herrialdeen laguntzea eta babesa ematea.

Asmo bikoitz hori bereizteko, alde batetik laguntzeko betebeharra dago (jendeari premiazko ondasun eta zerbitzuak hornitzea), eta bestetik babesteko betebeharra. Azken hori askoz konplexuagoa da, eta horregatik, Erakundeen arteko Batzorde Iraunkorrek (IASC, ingelesezko siglekin) oro har onartzen den definizio bat adostu du:

*“Norbanakoaren eskubide guztien errespetua bermatzera bideratutako jardueren multzoa, bidezko diren arau-multzoen letra eta espirituarekin bat etorritik; hau da, giza eskubideak, nazioarteko zuzenbide humanitarioa eta errefuxiatuen Zuzenbidea. Erakunde humanitarioek eta giza eskubideei lotutako erakundeek jardueren horiek modu inpartzialean bete behar dituzte, arraza, erlijio, jatorri nazional edo etniko, hizkuntza edo generoarekiko inolako aurreiritzirik izan gabe”.*

Definizio konbentzional hori errespetatuz, hainbat instantzietatik azpimarratu dugu babesa ez litzatekeela soilik "...jardueren multzoa" izango, lortzen duten emaitza baizik: hau da, babesa lorpenen arabera aztertu behar da, hala prozesuetan nola emaitzetan. Horrek eskubideetan oinarritutako ikuspegiarantz bideratzen gaitu, definizioaren zentralitatea bere berme eta errespetuan baitago.

---

<sup>1</sup> Informazio gehiago honako honetan:

[http://ec.europa.eu/echo/sites/echo\\_site/files/policy\\_guidelines\\_humanitarian\\_protection\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/echo/sites/echo_site/files/policy_guidelines_humanitarian_protection_en.pdf)

Eskubideetan oinarritutako ikuspegiari, larrialdi batean lagundutako jendea onuradun izatek eskubide-titular izatera igarotzen da. Horrek bizirik dirauten pertsonen eskubideak benetan gauzatu, bermatu eta babestu behar direla onartzea dakar, asistentzialismo soilaren fokua justizia sozialaren noziora aldatuz.

Ikuspegi horrek, gainera, erantzukizunen eta betebeharren titularrek (batez ere Estatuak) eskubide-titularren aurrean hainbat erantzukizun izatea sortzen du, eta adierazten du pertsonak ahuleziez gain gaitasunak ere badituztela eta prozesu osoan zehar euren parte-hartzea funtsezkoa dela, alde batetik “kalterik ez egiteko” printzipioa errespetatzeko, eta bestetik, prozesuaren subjektu aktiboak direlako (edo izan behar dutelako).

Ikuspegi horri eusten dion arau-oinarria Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen tresna juridikoetan, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan, errefuxiatuen Zuzenbidean eta desplazamendu behartuari buruzko Jarraibideetan dago bilduta<sup>2</sup>.

NAZIOARTEKO OINARRIZKO ESPARRU JURIDIKOA					
<b>Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzendaritza (GENZ)</b>	Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna, honako hau barnean hartuz:	Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948)	Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966) eta bere bi protokolo fakultatiboak	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna	Giza Eskubideei buruzko Eskualde Itunak
<b>Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH)</b>	Genevako Hitzarmenak (1949)	Protokolo Gehigarriak (1977)	Gatazka armatuen zuzenbidearen beste arau batzuk (Haga, eta abar)		
<b>Errefuxiatuen eta barne-desplazatuaren eskubideak</b>	Errefuxiatuen Estatuari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (1951)	Nazio Batuen barne-desplazamenduen printzipio gidariak (1998)			

“Babes” gisa zer ulertzen den hobeto ulertzeko eta ekintza humanitarioan izaera operatiboa emateko, Esfera Eskuliburuak<sup>3</sup> lau printzipio garatu ditu horri lotuta:

**Esfera Eskuliburuan** ekintza humanitarioan babesa gidatzeko **planteatzen diren lau printzipioak** honako hauek dira:

1. Pertsonak gure ekintzen emaitza gisa kalte osagarriak jasan ditzaten saihestea (“kalterik ez egitea” ideia aplikatzea)
2. Pertsonak laguntza inpartziala jasotzeko aukera izan dezaten zaintzea, euren premien arabera eta diskriminaziorik ezaren printzipioa betez.
3. Pertsonak indarkeriak eta hertsadurak eragindako kalte fisiko eta psikikoetatik babestea.
4. Pertsonen euren eskubideak aldarrikatzen, erreparazioa lortzen eta jasandako abusuez erreparatzen laguntzea.

<sup>2</sup> Jarraibideak ez dira juridikoki lotesleak diren arauak, eta horien benetako aplikazioa borondate politikoaren arabera dago.

<sup>3</sup> <http://www.sphereproject.org/sphere/es/manual/>

Ez dezagun ahaztu, gainera, gatazka eta/edo larrialdien tipologiak bilakaera bat izan duela eta konplexuago bihurtu dela, errealitate berriak sortuz, adibidez “beste indarkeria-egoera batzuk”. Beste indarkeria-egoera horiek, adibidez, narkotrafikoa eta krimen transnazionala (salerosketa eta trafikoa, besteak beste) oso ahulduta dauden eta/edo egitura para-estatalek kooptatzen dituzten instituzionalitateei gaineratzen zaizkien lekutan gertatzen dira. Erdialdeko Amerikako Iparraldeko Triangeluan eta Kolonbian edo Mexikon nagusi den eszenatoki bat da, bertan indarkeriako eta segurtasunik gabeko giroa sortu baita, jendearentzako ondorio humanitario larriak eraginez, desplazamendu behartua eta babes-premia larriak barne.

Horrek erronka garrantzitsuak planteatzen ditu eta sistematikoki urratzen ari diren eskubideak zein diren aztertzeko gai diren ikuspegiak behar ditu (adibidez: oso eragin handia jasan duten pertsonetako batzuk LGTBI kolektibokoak dira, emakumeak, giza eta ingurumen-eskubideen defendatzaileak, sindikalistak eta/edo ikasleak dira).

Pentsaezina da testuinguru horiek ikuspegi humanitario mugatuarekin aztertzea, kolektibo bakoitzarentzat egokienak diren babes-neurriak aztertzen dituen giza eskubideen ikuspegiarik gabe.

## 1.2. Ikuspegi diferentziala

Ikuspegi diferentziala azterketa-metodo bat da, errealitatean dauden aniztasunak eta ekitaterik ezak kontuan hartzen dituen jendearen eskubideen arreta eta babes egokia eskaintzeko asmoz. Diferentzetzat jotzen duten jendearen aurkako diskriminazio modu desberdinak azaleratu nahi dituen errealitatearen azterketa batean datza.

Funtsezkoa da jende-talde jakin bakoitzaren berezko ezaugarriak –generoa, adina, alderdi kulturalak edo garapen psikiko/fisiko/soziala–, lan egiten dugun eremuko pertsonen gaitasunak eta aurre egin beharreko oztopoak, alderdi jakin batzuen aurrean dituzten kalteberatasunak eta aurre egiteko erabiltzen dituzten estrategiak ulertzea eta kontuan izatea, desberdintasun-egitura horiek ez berregiteko, ez iraunarazteko eta ez handitzeko eta euren gaitasunei babesa emateko. Ikuspegi hori aplikatzen ez duen ekintza humanitarioa partziala eta baztertzalea izango da.

### Funtsezko Arau Humanitarioa

**1. konpromisoa:** Krisi humanitarioek eraginpean hartutako komunitate eta pertsonen laguntza egokia jasotzen dute euren premiak kontuan izanik.

**Kalitate-irizpidea:** Erantzun humanitarioa egokia eta bidezkoa da.

**2. funtsezko ekintza:** Premien eta arriskuen ebaluazio inpartzialean eta talde bakoitzaren kalteberatasun eta gaitasunen ulermenean oinarrituta egongo diren programa egokiak diseinatu eta betearaztea<sup>4</sup>.

**Erakundeen erantzukizunak 1.4.** Krisi humanitarioek eraginpean hartutako komunitate eta pertsonen premia eta gaitasunetan oinarritzen den laguntza inpartziala eskaintzeko konpromisoa hartzen dute erakundearen politiketik.

### Ikuspegi diferentziala ziurtatzeko gutxieneko arauak:

<sup>4</sup> Dauden taldeen artean honako hauek azpimarratu behar dira: emakumeak, gizonak, neska-mutilak, nerabeak eta pertsona helduak, baita dibertsitate funtzionala duten pertsonak eta beste talde espezifiko minoritario edo etniko batzuk, inolako diskriminaziorik gabe.

- Laguntza-horniduran diskriminaziorik ez dagoela ziurtatzea eta talde kaltebera guztiak barnean har daitezen sustatzea.
- Dauden talde kalteberen identifikazioa, lokalizazioa eta jarraipena ziurtatzea.
- Dauden taldeen premia bereziak identifikatzea.
- Dauden taldeek identifikazioan, plangintzan eta erabaki-hartzean aktiboki parte hartuko dutela ziurtatzea.
- Hornitzen dugun informaziorako sarbidea bermatzea.

### 1.2.1. Dibertsitate funtzionala duten pertsonak<sup>5</sup>

Normalean, dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonen kalteberatasun-egoera handiagoa da, eta horrek hondamendi eta/edo gatazketan hilkortasun- eta afektazio-tasak ekarri ditu. Bestalde, kalteberatasun hori handitu egin ohi da eta handitu egiten da behin zorigaitz batek eragina duenean, laguntzaren inguruan sortutako dinamikaren ondorioz, non ez diren kontuan izaten pertsonen beharrian eta gaitasun desberdinak. Tradizionalki, dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonak kolektibo kaltebera bezala ikusi izan dira, ikuspegi paternalistarekin. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak (2006) paradigma-aldaketa bat markatu du, giza eskubideetan oinarritzen den ikuspegia hartu duelako eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen gizartearekiko inklusioa eta parte-hartzerako oztipoen ezabaketan eta gainerako pertsonetara berdintasun-baldintzetan eskubideak erabili ahal izatean oinarritzen delako.

Konbentzio horren 32. artikulua exijitzen du agente humanitarioek, nazioarteko lankidetzarako funtsak erabiltzen dituztenean, irisgarritasun-arauak kontuan izan ditzatela, zentzuzko doikuntzak egin ditzatela eta erabakiak hartzeko prozesuan desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea bermatu dezatela.

Beharrezkoa da dibertsitate funtzionala duten pertsonen dauden zerbitzuetarako sarbide igualitarioa bermatzea, eta ez haientzat zerbitzu bereziak sortzea. Hau da, ingurune fisikora, garraiora, informaziora eta komunikazioetara eta jendearentzat irekitako edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuetara baldintza berdinetan sartuko direla bermatzeko lan egin behar dugu, landa-inguruetan nahiz hiri-inguruetan.

### 1.2.2. Pertsona helduak<sup>6</sup>

Hondamendiek pertsona helduengan duten inpaktua jendearentzat oro har duten inpaktua baino larriagoa da, zahartzarotik eratorritako arazoak –indarra galtzea, ariketa fisikoarekiko tolerantzia txikiagoa, muga funtzionalak, zentzumen-pertzepzio murriztua eta abar– eta kolektibo horrek kasu askotan jasan beharreko pobrezia eta gizarte-bazterkeriako egoeraren –esposizio handiagoa duten lekuetan kokatuta dauden

<sup>5</sup> Informazio gehiago honako honetan:

[http://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/HandicapInt\\_Disability\\_Checklist\\_Emergency\\_Response\\_EN.pdf](http://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/HandicapInt_Disability_Checklist_Emergency_Response_EN.pdf) eta <https://www.womensrefugeecommission.org/disabilities/disability-inclusion>

<sup>6</sup> Informazio gehiago honako honetan:

[http://www.who.int/hac/network/interagency/iase\\_advocacy\\_paper\\_older\\_people\\_sp.pdf](http://www.who.int/hac/network/interagency/iase_advocacy_paper_older_people_sp.pdf)

etxeak, narriatu egin diren materialekin eraikiak, eta abar– ondorioz. Gainera, ezaugarri horiei gaineratu behar zaie emergentzia- edo gatazka-egoeretan ematen diren erantzunek euren beharrezkoen espezifikotasuna –osasu-arazo kronikoak, mugikortasun-arazoak eta abar– ez dutela kontuan izaten, tokiko eta Estatuko agintariek eta eragile humanitarioek ez dituztelako lehentasuneko beharrezko gisa ikusten.

Pertsona helduak talde kaltebera gisa, laguntzen jasotzaile soil gisa, sailkatuta daudenez, erakunde gehienetan kolektibo horrek erantzunaren faseetan parte hartzeko aukera ez da sustatu. Gainera, zenbait kasutan, batez ere emergentzien unean, pertsona helduak gainezkatuta senti daitezke erantzukizun berriak hartzerakoan. Garrantzitsua da pertsona helduen gaitasunak eta ekarpenak identifikatzea eta indartzea.

Jende kalteberenaren premia eta eskubideetan oinarritutako ekintza humanitarioak, haien premiak eta gaitasunak kontuan hartzen dituzten eta ezarrita dauden zerbitzuetarako sarbide igualitarioa bermatu behar du –egitura paralelorik sortu gabe–.

### **1.2.3. Haurtzaroa<sup>7</sup>**

Hondamendiek nahiz gatazkek eragindako krisi humanitarioek eragina dute haurrengan epe labur, ertain eta luzean, hala nola: estres emozionaleko gertakariak, hezkuntzarako sarbidea galtzea, sexu-abusuak jasateko arriskua, esplotazioa, tratu txarrak, euren familien banatzea, nutrizio eskasa, nahasmendu psikosozialak, genero-indarkeria, esplotazio ekonomikoa, talde armatuek errekrutatzea eta abar.

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (1989), haurrak agente sozial gisa eta euren eskubide propioen titular aktibo gisa aitortzen dituen lehen tresna juridikoki loteslea da. Konbentzioan unibertsaltasunaren edo diskriminaziorik ezaren printzipioa, haurren interes goragokoagoa, bizitzarako eskubidea, biziraupena eta garapena, euren iritziekiko errespetua eta berdintasuna eta eskubideek elkarren artean duten lotura azpimarratzen dira.

Horrez gain, Nazio Batuen Batzar Orokorrek 2000. urtean konbentzioaren bi Protokolo fakultatibo onartu zituen, eta haurren babesa indartzen duten gatazka armatuetan parte hartzearen eta sexu-esplotazioaren aurka eginez.

Haurren eta gazteen babesak lehentasuna izan behar du ekintza humanitarioan lan egiten dutenentzat, emergentzia guztietan haien segurtasun eta ongizatearekiko mehatxuak egon ohi direlako. Eragile horiek lan egin behar dute sistemak eta tokiko agenteek haurren babesa bermatzeko dituzten gaitasunak indartzeko emergentzia-fasea amaitzen denean eta baita lehen erantzunean ere.

### **1.2.4. Talde etnikoak**

Laguntza humanitaria kasu askotan inposatzailea izan da eta ez ditu asko errespetatu tokian tokiko kulturak. Baina eragile humanitarioek jakin behar dute jakintza eta kultura, eta mundua ikusi eta ulertzeko modu asko daudela, eta gogoan izan behar dute gure ekintzetan Europako tokiko historiaren kontzeptuen estrapolazioa egiten dugula. Testuinguru bakoitzean ikuspegi diferentzial etnikoa duen ekintza humanitaria bermatzeko lan egin behar dute, sistemak esportatu gabe eta normalki egon ohi diren honako gabezia hauek kontuan izanik:

---

<sup>7</sup> Informazio gehiago honako honetan: [www.unicef.org/lac/normas\\_minimas\\_edition.pdf](http://www.unicef.org/lac/normas_minimas_edition.pdf)

- Indigenen gobernu-erakundeen eta erabakiak hartzeko egituren onarpenik eza.
- Kontzientziatorik eta arretarik eza herri indigenen giza eskubideekiko abusuei dagokienez.

Bere lanarekin herri indigenen eskubideak ahultzen edota ziurtatzen lagundu dezakeen engranajeetako bat da ekintza humanitarioa.

Ekintza humanitarioaren mundua badirudi ohartu dela bizi garen munduaren kultura-aniztasun handiaz, baita kultura-praktika guztietara egokitu eta, beraz, lan egiten duen komunitateen eta pertsonen eskubideak modu konplexuagoan ikusi behar izateaz. Hondamendien edo gatazken eraginpean dauden pertsonen eta komunitateen duintasuna berreskuratzeko eta haien premia eta eskubideei erantzun egokia emateko ahalegina egitea denoi dagokigu, baina eskubide horiek baliatzeko modua desberdina izan daiteke.

### 1.3. Genero-ikuspegia

IASCaren Ekintza humanitarioko genero-gaiei buruzko eskuliburuak ezartzen du “genero” hitzak bizi-zikloaren etapa guztietan gizonen eta emakumeen arteko ikasitako diferentzia sozialak aipatzen dituela, eta kultura bakoitzean erabat sustraituta dauden arren denboraren poderioz aldakorrak direla eta kultura bakoitzaren barnean nahiz kulturen artean aldaketa zabalak dituztela.

Generoak edozein kulturatan gizonentzako eta emakumeentzako rolak, boterea eta baliabideak mugatzen ditu. Eskuliburu horrek aipatzen dituen alde horiek, bi generoen hautatzeko gaitasuna mugatzen duten ohiturak, portaerak eta sinesmenak eraiki daitezkeen dakarte.

Jakina da gatazken eta hondamendien inpaktua desberdina dela generoaren arabera. Baliabide eta onurekiko sarbide- eta kontrol-mailak, botere-harremanek, atxikitako rolek eta arau soziokulturalek mugatzen duten alde aurreko kalteberatasunaren araberakoa izango da. Inor atzean ez uzteko xedez, bereziki garrantzitsua da ekintza humanitarioak kontuan izan ditzala elementu horiek eta emakumeen premia praktikoak eta interes estrategikoak, euren izaera eta posizioa eta baita parte-hartze mailak ere.

Zorionez, ebidentzia horren ondorioz azken urteotan erakunde humanitarioei genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna errazteko hainbat gida eta tresna sortu dira. Horien artean honako hauek dira aipagarriak:

- *Women, Girls, Boys & Men. Different Needs – Equal Opportunities*. IASC Gender Handbook for Humanitarian Action<sup>8</sup>
- *Gender in Humanitarian Aid: Different Needs, Adapted Assistance*. ECHO<sup>9</sup>

Gainera, garatu diren gida eta politikei genero-markadoreak erantsi zaizkie, eta erakundeek euren proiektu eta programetan genero-ikuspegia zein neurritan gaineratzen duten neurtzeko aukera ematen diete. Bi garrantzitsuenak IASCaren genero-markadorea eta Laguntza Humanitarioaren eta Babes Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren (DG-ECHO) genero- eta adin-markadorea dira. Elkarren artean alde txikiak ikus daitezkeen arren, denok bat datoz gomendio/eskakizun nagusiak ezartzeko unean:

<sup>8</sup>[https://interagencystandingcommittee.org/system/files/legacy\\_files/IASC%20Gender%20Handbook%20%28Feb%202007%29.pdf](https://interagencystandingcommittee.org/system/files/legacy_files/IASC%20Gender%20Handbook%20%28Feb%202007%29.pdf)

<sup>9</sup> [http://ec.europa.eu/echo/sites/echo-site/files/Gender\\_SWD\\_2013.pdf](http://ec.europa.eu/echo/sites/echo-site/files/Gender_SWD_2013.pdf)



- Proiektu/programa diseinatu aurretik genero-azterketa bat egitea, generoaren eta adinaren arabera banandutako datuak beharko dituen. Urrats hori funtsezkoa da, egun dauden genero-aldeak agerian utziko dituelako eta proiektuaren diseinu, inplementazio eta ebaluazioan erabaki-hartzea erraztuko duelako.
- Laguntza sistematikoki egokitzea inor atzean ez uzteko.
- Testuingurutik azaleratzen diren arriskuak ebaluatzea, ahal den neurrian arintzeko; baita proiektu edo programaren ekintzen arriskuak ere, horiek ere arintzeko.
- Metodologia parte-hartzaileak erabiltzea eta ekipoaren osaera zuzena izatea (horrek ez du esan nahi 50/50 izan behar duenik, baina behar den neurrian ordezkarria izan behar du genero, etnia, hizkuntza, adina eta abarri dagokienez, eskubideen titular den pertsona ororen premiak bazter ez uzteko). Emakumeen eta nesken parte-hartze efektiboa ziurtatzea funtsezkoa izango da haien premiak eta gaitasunak kontuan hartzen direla eta, beraz, aurreko puntuak betetzen direla ziurtatzeko.

### **Gogoan izan**

Generoak ez ditu soilik emakume eta gizonen inguruko eraikuntza sozialak aipatzen, izan ere, sexu-identitate eta -orientazioak ere barnean hartzen baititu. LGTBIQ kolektiboa, munduko edozein lekutan diskriminaziorik handiena jasaten duten kolektiboetako bat da. Kolektibo horren premiak, rola eta gaitasunak ere aztertu egin behar dira emergentzia bat dagoenean, genero-ikuspegiaren zati gisa<sup>10</sup>.

Ekintza humanitarioak testuinguruaren ezagutza eta azterketa on bat izan behar du abiapuntu, atzean inor ez uzteko.

Egia esan, auzia ez da ezer berririk egitea, beste ikuspegi bat erabiltzea baizik; beraz, ezinbesteko kalitate-irizpide bat da ekintza humanitarioak bere printzipio gidarierantz eman ahal izateko: gizatasuna, inpartzialtasuna, independentzia eta neutraltasuna.

#### **1.4. Hondamendien arriskuaren murrizketa**

Hondamendien arriskuaren murrizketa, ekintza humanitarioaren barnean bete behar duen espaziori buruzko eztabaidaz edota serie honetako 2. koadernoan lehendik eztabaidatu dugun garapenez haraindi, ekintza humanitarioko proiektuen barnean kontuan izan behar da, bestela komunitateek aurrez aurre izan ditzaketen arriskuak handitu egin ditzakegulako.

Jendeak zein arriskuri aurre egin behar dion jakitea garrantzitsua da, baita gizarte bat osa dezaketen talde desberdinen arabera jakitea ere, gaitasun eta kalteberatasun

<sup>10</sup> Europan gaur egun lege-mailan bi genero onartzen dira, baina munduko beste leku batzuetan, adibidez Tailandian, hiru onartzen dira, etra hainbat herrialdetan, adibidez Filipinetan, lege-onarpena ez duten arren, onarpen sozial zabala duten generoak daude, adibidez "Ladyboy" deitutakoak.

espezifikoak dituztelako; eta hondamendien arriskuaren murrizketa proiektuaren zikloaren fase guztietan sartu behar da.

Babes Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak ezartzen duen bezala, hondamendien arriskuaren murrizketa barnean hartzeak esan nahi du jardun guztiek bertan dauden arrisku guztiak kontuan izan behar dituztela eta haien bilakaera egokian oinarritu behar dutela. Operazioek berehalako nahiz etorkizuneko identifikazio-arriskuak murrizteko ahalegina egin behar dute. Hori bi eratan egin daiteke: batetik, jardunak arrisku horien kontra babestuta egotea (adibidez: urez betetzeko joera izan dezaketen zonatan goiko mailen edo ur-mugen gainera dauden ur-puntuak ziurtatzea, uholdeek ez ditzaten kaltetu), eta bestetik, pertsonentzako arrisku horiek murriztuz (adibidez: etxeetan suteen kontrako babes egokia jartzea). Hondamendien arriskuaren murrizketaren emaitzak eta jarduerak erantzun sektorial batean bildu daitezke, adibidez, izurrite bati erantzuteko proiektu batean zaintza-sistema bat sartuz.

Hori guztia egiteko oinarritzkoa da tokiko gaitasunak, hala pertsonenak nola tokiko erakunde eta instituzioenak, indartzeko lan egitea, emergentzia bat dagoenean lehendabizi erantzuten dutenak direlako eta tokian bertan geratzen direlako. Gogoan izan behar dugu arriskua murriztu egiten dela hondamendi baten aurrean ematen den erantzuna hobetzen den heinean.

### **1.5. Ingurumen-ikuspegia**

Ingurumenak ekintza humanitarioarekiko duen elkarreragina hainbat ikuspegitatik azter daiteke:

- Krisialdi baten ondoren ingurumen-inpaktuek proiektu baten helburuak arriskuan nola jar ditzaketen, emergentzia soileko faseaz haraindi, jendeari baliabide natural narriatuak utziz eta etorkizuneko mehatxuen aurrean kalteberatasuna areagotuz.
- Hondamendien eta/edo gatazka armatuen ondoren egiten diren sorospen eta errekupeazio goiztiarreko operazioek hainbat kasutan konpondu nahi dituzten krisiek eragiten dituzten ingurumen-kalte berdinak edo handiagoak nola eragin ditzaketen.
- Oro har hartuta, egiaztatu hainbat gai, adibidez aldaketa klimatikoa, baliabideen kudeaketa txarra, basamortutzea eta abar jadanik ondorio humanitarioak sortzen ari direla. Dokumentu honen hedadura gaintzen du, baina hainbat gai, adibidez ingurumen-aldaketei lotuta dauden migrazio behartuak, ekintza humanitarioarentzat une honetan dauden eta etorkizunean are gehiago egongo diren erronkak dira.

Nolabaiteko garrantzia duen jardun humanitario baten funtzionamendu soilak hondakin kutsatzaile kopuru nahiko handia sortu ohi du, eta baliabideen ustiapen handia dakar. Baliabide naturalak askotan beharrezkoak dira eraginpeko jendearen berehalako premiei erantzuteko, eta horrek baliabideen erauzketa bizkorra eta kontzentratua ekarri ohi du, askotan toki mailan urriak diren arren, arrisku- eta kalteberatasun-iturri berriak sortuz.

Jardun humanitarioetan ingurumen-kontsiderazioak barneratu beharra oro har onartu egiten dute bertan lanean diharduten eragile humanitarioek, baina errealitateak erakusten du jardun gehienetan ingurumen-arrisku ugari deskuidatu egiten direla. Gure sektorean Ingurumen Inpaktuaren Azterlan gutxi egiten dira.

Krisiaren unean guztiok dugun pertzepzioa baliabide naturalak eta ingurumena garrantzirik gabeko erronka sekundarioa edota berehalako premia humanitarioak baino

urgentzia txikiagokoak direla izanik, ingurumena kontuan hartzea kasu askotan berreraikuntza ekonomiko eta sozialerako abiapuntua izan daiteke, eta ingurumenarekiko sentibera den errekuerazio-estrategia bat funtsezkoa da epe luzean garapen jasagarria ziurtatzeko.

## Bibliografía

Dayna Brown and Antonio Donini (2014): *Rhetoric or reality? Putting affected people at the centre of humanitarian action*. ALNAP  
<http://www.alnap.org/resource/12859>

Ashley Jackson (2014): *Protecting civilians: the gap between norms and practice*. HPG  
<http://www.alnap.org/resource/12461>

Emma Pearce (2014): *Disability Inclusion: Translating Policy into Practice in Humanitarian Action*. Women's Refugee Commission  
<https://www.womensrefugeecommission.org/disabilities/disability-inclusion>

ADCAP(2015): *Minimum Standards for Age and Disability Inclusion in Humanitarian Action*  
[http://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/Minimum\\_Standards\\_for\\_Age\\_and\\_Disability\\_Inclusion\\_in\\_Humanitarian\\_Action\\_0.pdf](http://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/Minimum_Standards_for_Age_and_Disability_Inclusion_in_Humanitarian_Action_0.pdf)

IASC (2008): *Las intervenciones humanitarias y las personas mayores: Orientación básica para actores humanitarios*  
[http://www.who.int/hac/network/interagency/iasc\\_advocacy\\_paper\\_older\\_people\\_sp.pdf](http://www.who.int/hac/network/interagency/iasc_advocacy_paper_older_people_sp.pdf)

Global Protection Cluster(2012): *Normas mínimas para la protección de la infancia en la acción humanitaria*. [https://www.unicef.org/lac/normas\\_minimas\\_edition.pdf](https://www.unicef.org/lac/normas_minimas_edition.pdf)

IASC (2008): *Mujeres, niñas, niños y hombres Igualdad de oportunidades para necesidades diferentes y orientaciones para su aplicación*  
[http://www.unrwa.es/EBDHsevilla2015/wp-content/uploads/2015/11/IASC\\_ManualGe%CC%81nero.pdf](http://www.unrwa.es/EBDHsevilla2015/wp-content/uploads/2015/11/IASC_ManualGe%CC%81nero.pdf)

DGECHO (2013): *Género: Una asistencia adaptada a diferentes necesidades*  
[http://ec.europa.eu/echo/files/policies/sectoral/gender\\_policy\\_2014\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/echo/files/policies/sectoral/gender_policy_2014_es.pdf)

Francisco Rey Marcos (2015): *¿Es posible una ayuda humanitaria basada en derechos? Reflexiones sobre el enfoque basado en derechos humanos en la acción humanitaria*. [http://iecah.org/images/stories/DHE\\_08.pdf](http://iecah.org/images/stories/DHE_08.pdf)

UNISDR (2015): *GAR: Evaluación global sobre la Reducción del Riesgo de Desastres*  
[http://www.preventionweb.net/english/hyogo/gar/2015/en/gar-pdf/GAR15\\_Pocket\\_ES.pdf](http://www.preventionweb.net/english/hyogo/gar/2015/en/gar-pdf/GAR15_Pocket_ES.pdf)

John Twigg (2015): *Disaster Risk Reduction*. HPN <http://goodpracticereview.org/wp-content/uploads/2015/10/GPR-9-web-string-1.pdf>